

UDALEKU IREKIAK / 2023

Araudia

1. Udalekuen helburuak

Udalekuen helburu nagusia da aisialdi giroan hurren artean euskararen erabilera sustatzea. Horrez gain, udalekuetan balio hauek ere landuko dira: hezkidetza, kultur aniztasuna eta inklusibitatea.

2. Datak, ordutegiak eta elkartzeko tokiak

Arantza, Bera, Etxalar eta Igantzi:

Uztailaren 3tik 28ra (4 aste; izen emateak asteka egiten ahal dira), 10:00-13:00.

Arantza: Arantzako Herri Eskola

Bera: Ricardo Baroja I.P. / Labiaga Ikastola

Etxalar: Landagain I.P.

Igantzi: Igantziko I.P.

Lesaka:

Uztailaren 11tik (asteartea) abuztuaren 25era (7 aste; izen emateak asteka egiten ahal dira), 9:00-13:00. Tokia: Irain I.P.

Herri batean talde bat sortzeko gutienez 15 haur beharko dira.

3. Nork hartzen ahal du parte?

- 3-12 urte bitarteko (2011-2019 urteetan jaiotako) haurrek.
- Bortziriako udalerriren batean erroldatuak edota bertako ikastetxeetako ikasleek. Udalekuak euskaraz direnez, parte hartzaileek D edo B ereduan ikasi behar dute. Mankomunitateak baldintza horiek egiaztatzeko behar diren agiriak eskatuko ditu, udal eta ikastetxe bakoitzean.
- Izen emateko epea bukatu ondotik plazak soberan izanez gero, Bortziritan erroldatuak ez diren edota bertako ikastetxeetako ikasleak ez diren haurrak matrikulatu ahal izanen dira, baina ezinbertzeko baldintza izanen da D edo B ikas ereduetan matrikulatuak egotea. Hori egiaztatzea familiarri dagokio.
- Behar bereziak dituzten haurrentzako 3 plaza gordeko dira. Haur horiek begirale bana behar dutela erabakitzeko orduan osasun eta hezkuntza arloko profesionalek aurkeztutako txostenak hartuko dira aintzat. Adinari dagokionez, 15 urte bitartekoek parte hartzen ahal dute (2008-2019 bitartean jaiotakoek). Izen emana ahala beteko dira plazak.

4. Izen ematea

- Izena ematea online eginen da edota www.bortziriak.eus webgunetik.
- Izena emateko epea zabalik egonen da maiatzaren 22tik 31ra, biak barne.
- Izena ematean bakoitzak nahi dituen asteak hautatuko ditu.
- Udalekuetan onartuak izan diren haurren asistentzia kontrolatuko da. Astebetez udalekuetara justifikatu gabe joaten ez diren haurrek plaza galduko dute eta erreserban daudenei parte hartzeko aukera emanen zaie. Plaza galtzen duten familiek ez dute dirua berreskuratzeko aukerarik izanen.
- Plaza kopurua mugatua da. Izena emana hala onartuko dira parte hartzaileak, eskainitako plazak bukatu arte.
- Izena ematea ez da ontzat emanen haurraren osasun txartela ez badago mankomunitatearen esku ekainaren 9a baino lehen. Matrikula ordaintzeko epea ere ekainaren 9ra artekoa izanen da; egun horretarako ordainketa ez badago egina, izen emateak balioa galduko du.

5. Matrikulen prezioak (ordua 1,5 €)

Arantza, Bera, Etxalar eta Igantzi (astean 15 ordu):

	Aste 1	2 aste	3 aste	4 aste
Ume 1	22,50 €	45,00 €	67,50 €	90,00 €
2 anai-arreba (-%15)	38,25 €	76,50 €	114,75 €	153,00 €
3+ anai-arreba (-%30)	47,25 €	94,50 €	141,75 €	189,00 €

Lesaka (astean 20 ordu):

	Aste 1	2 aste	3 aste	4 aste	5 aste	6 aste	7 aste
Ume 1	30 €	60 €	90 €	120 €	150 €	180 €	210 €
2 anai-arreba(-%15)	51 €	102 €	153 €	204 €	255 €	306 €	357 €
3+ anai-arreba (-%30)	63 €	126 €	189 €	252 €	315 €	378 €	441 €

Behar ekonomikoak dituzten familiek prezio horien gainean % 50eko deskontua izanen dute. Hori baloratzeko izena eman ondotik gizarte zerbitzuekin harremanetan jarri behar dute, bertan balorazioa egin dezaten (948635036).

6. Matrikulen zenbatekoa itzultzea

Behin izena emanda, udalekuetan bajak izanez gero, ordaindutako diruaren itzulketak modu honetan eginen dira:

- Udalekuak hasi aitzinetik baja justifikatzen bada (eritasuna edo azken orduan sortutako arazo larriren bat, agiri bidez justifikatuta), matrikularen % 100 itzuliko da.
- Udalekuak hasi ondotik baja justifikatzen bada (eritasuna edo azken orduan sortutako arazo larriren bat, agiri bidez justifikatuta), matrikularen zati proportzionala itzuliko da (izena emanda dagoen epean falta diren egunei dagokiena).
- Udalekuak hasi aitzinetik baja emanez gero justifikaziorik gabe, matrikularen % 50 itzuliko da.
- Udalekuak hasi ondotik baja emanez gero ez da dirurik itzuliko.

Edozein kasutan, matrikularen dirua itzuli behar bada, bankuko gastuak beti familiaren gain izanen dira.

7. Udalekuen antolaketa eta segimendua

Udalekuak Bortziriako Euskara Mankomunitateak antolatu ditu. Mankomunitateak Dindaia Fundazioa kontratatu du udalekuen prestaketa orokorraz, segimenduz eta langileen kontratazioaz ardura dadin.

8. Datu pertsonalen babesa

Eskatzaileen datuak babesteari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan oinarritua. Erabileraren arduraduna: Bortziriako Euskara Mankomunitatea. Xedea: Udalekuetan izena ematea. Legitimazioa: Izen ematea gauzatzea. Hartzaileak: Bortziriako Euskara Mankomunitateak udalekuak antolatzeko sortu duen fitxategian gordeko dira. Mankomunitateak Dindaia Fundazioaren esku utziko ditu antolaketarako beharrezko dituen datuak. Dindaia Fundazioak, udalekuak bukatutakoan, datu horiek deuseztatu egingen ditu, edo mankomunitateari itzuliko dizkio. Eskubideak: interesatuak bere datuak eskura, zuzen eta ezaba ditzake, bai eta bertze eskubide batzuk egikaritu eta datuen babesari buruzko informazio gehigarria ikusi ere.

Bortziriak, 2023ko apirilaren 18a